

GURE IDEIA

Guk aukeratutako ideia aplikazio bat da non jendearen sare sozialak beraiek jakin gabe eskura ditzakezun. Hau da, aplikazioan sartu eta bertan agertuko zaizu zure inguruan dauden pertsonen sare sozialak, noski beste pertsona horrek ere aplikazioa eduki behar du bere sare sozialak agertzeko.

Aplikazioa hau erabiltzeko lehenengo erregistratu egin behar zara eta besteek zure sare sozialak ikusteko eskubidea izango dutela onartu behar duzu. Erregistratzeko, pasahitz berri bat sortu behar da (zenbakiak konbinatu, tamaina luzekoa, puntuazio ikurrekin...). Gero, zuk agerrarazi nahi dituzun sare sozialak aukeratu behar dituzu. Ondoren ubikazioa aktibatu eta azkenik, kaletik joan eta beste pertsonen sare sozialak agertuko zaizkizu.